

CAMPAÑA MISIONES DIOCESANAS VASCAS 2023

75 AÑOS ABIERTOS AL MUNDO



19 de Marzo
Martxoak 19
2023

75
AÑOS
URTE

desde 1948tik

ABIERTOS AL
MUNDO

**MUNDURA
ZABALIK**

misioak.org

MMDDVV
elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574
LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957
BIZUM _____ 00897

POR FAVOR: Al hacer el ingreso señalar primero: **MUNICIPIO Y LUEGO NOMBRE DE LA PARROQUIA** (Para poder identificar las parroquias que tienen el mismo nombre. Ejemplo: **Getxo- Andra Mari - Camp. MMDDVV**)
Cualquier información: misiobi@bizkeliza.org ó tlf: 94 401 36 99

Un cordial saludo:

Como en años anteriores, en nuestras diócesis vascas, celebramos el día de las MISIONES DIOCESANAS el día 19 de marzo, con el lema:

"75 AÑOS ABIERTOS AL MUNDO"

Las tres diócesis vascas renovamos nuestro compromiso con la Misión, pionero en el mundo, que se concretó en nuestras Misiones Diocesanas Vascas. Esta apuesta, con los años, ha ido cambiando y actualizándose en sus formas, pero ha mantenido la fidelidad, como seguidoras de Jesucristo. Continuamos respondiendo y acompañando a las personas empobrecidas e Iglesias hermanas en los países donde hemos colaborado. 75 años después, este compromiso sigue vigente y nos recuerda y nos ha convertido en unas diócesis "abiertas al mundo". Nuestro cartel este año es un guiño a los carteles iniciales de nuestra aventura misionera.

En esta campaña interdiocesana hemos programado actividades en las que nos gustaría os sintierais invitados e invitadas. Se inaugurará el Archivo de Misiones Diocesanas Vascas en Vitoria; tendremos un encuentro celebrativo en Bilbao para las personas colaboradoras, corresponsales, voluntariado, misioneros y misioneras; también recordaremos, en una exposición, los carteles de las campañas más significativos. De todo esto y más os enviamos la información.

Recibiréis en las parroquias los materiales alusivos al día, la memoria 2022 con las actividades y proyectos. Podéis encontrar más información de la campaña en www.misioak.org.

Un Feliz Día para todos y todas y muchas gracias por vuestro apoyo y generosidad.

Un abrazo.

Felicitas Martín Fernández

Delegada Diocesana de Misiones. Bilbao

CARTA DEL OBISPO DELEGADO PARA MISIONES DIOCESANAS VASCAS

75 años abiertos al mundo / 75 urte mundura zabalik
"Id a todos los pueblos" Mt 28, 19.

De dónde venimos

La partida de los ocho primeros misioneros diocesanos a Ecuador, el 12 de octubre de 1948, fue el fruto de un largo camino de reflexión compartida, dificultades, sueños y anhelos de toda una Diócesis, que entonces englobaba a Bilbao, San Sebastián y Vitoria, y particularmente de aquel Seminario Diocesano en el que se vivía un gran fervor misionero. De ello resultó una experiencia pionera en el mundo: la encomienda de un territorio de Misión a una Iglesia particular. Así nacieron las Misiones Diocesanas Vascas.

La Misión, un diálogo que nos transforma

Desde 1948, las Misiones Diocesanas Vascas han estado presentes en diferentes lugares de América y África (Ecuador, Venezuela, Brasil, Chile, Angola, Ruanda y R. D. Congo), con casi 700 misioneros y misioneras que han contribuido a reforzar la apuesta por la Misión Universal de la Iglesia.

Este caminar se ha hecho realidad gracias al diálogo con las diferentes culturas y pueblos que ha ido transformando los modos de entender y de estar en la Misión: la inculturación, el trabajo con las comunidades, la promoción humana, la lucha por la justicia, la valoración de la religiosidad popular... De esta forma, nuestras diócesis, se han ido abriendo a la riqueza que nos aportaba la experiencia de acompañar la fe en medio de esos pueblos, así como sus luchas para superar la pobreza y falta de oportunidades que limitan su vida y su dignidad.

En este proceso, no solo hemos acompañado; hemos aprendido muchas cosas, profundizando y enriqueciendo nuestro compromiso con las Iglesias jóvenes hermanas a las que hemos servido.

Es una alegría poder celebrar ahora 75 años de historia compartida. Este aniversario es una oportunidad para agradecer a tantas personas su fidelidad y compromiso misionero en las parroquias, en los grupos de misiones, en las corresponsalías de la revista Los Ríos... A las que forman la gran familia de misioneras y misioneros en cada realidad.

Renovando el mandado de "Id a todos los pueblos"

En la Campaña de San José de este año queremos recordar y, sobre todo, actualizar la idea fundante de nuestra Iglesia: "Id a todos los pueblos" (Mt 28, 19).

Queremos renovar hacia el futuro nuestro ser como Iglesias abiertas al mundo, impulsando la tarea primordial de la comunidad cristiana: comunicar nuestra experiencia de Dios, la Buena Noticia de un Jesucristo en el que Dios mismo se revela, que en oración descubre su camino y nos muestra la mejor ruta. Y lo hacemos respondiendo a la llamada del Señor Jesús en los gritos de una humanidad sufriente. Un Señor Jesús que necesita seguidores deseosos de defender la vida, inspirados en la plenitud del mensaje evangélico.

Hoy vivimos una realidad compleja, de desigualdad, de cambio climático, guerras, violaciones de derechos humanos... lo que supone un éxodo global de personas migrantes, refugiadas y desplazadas. Ante estas situaciones, como cristianos en misión, asumimos el anuncio integral del Evangelio, la vivencia del Dios de Jesús, su mensaje sanador a nivel personal y social.

Aunque en Europa, en nuestros ambientes, la necesidad de misión se hace cada vez más urgente y compleja, no podemos perder esa mirada universal que ensancha nuestro corazón y abre nuestras mentes, ayudándonos a salir de nuestros círculos y perspectivas, a menudo, demasiado pequeños. Cristo desea que su salvación llegue a los confines de la tierra y nos sigue pidiendo colaboración.

“La vida no es tiempo que pasa, sino tiempo de encuentro”, nos dice el Papa Francisco. La misión es ese encuentro con el Señor en los empobrecidos, de los que recibimos mucho. Él nos sigue llamando a ser sal, luz y levadura, como el grano de mostaza que desde lo sencillo va creciendo poco a poco en fruto y en esperanza.

El compromiso misionero, que llevó a nuestras diócesis a apostar por la evangelización de otros pueblos, nos ha enriquecido y ha sido un elemento transversal e identitario de las tres diócesis vascas. Queremos que siga siéndolo también en el futuro.

El momento de las Iglesias jóvenes

Los tiempos cambian y hoy aquellas comunidades nacientes que acompañamos, van creciendo y haciéndose Iglesias maduras. Nuestro modo de acercarnos, de acompañar, de relacionarnos con ellas es necesariamente distinto. Pero la llamada de Jesús a salir y a comunicar el Evangelio a todos los pueblos sigue ahí y no puede perder fuerza.

A lo largo de los años nos hemos nutrido con los testimonios de misioneros y misioneras en las parroquias, de las voces del sur, con los Hermanamientos, las “experiencias de verano”. Seguiremos buscando caminos y concretando propuestas, antiguas y nuevas que aterricen nuestro ser misionero.

Continuamos en la tarea, en animación misionera y en cooperación con otros pueblos e Iglesias. Necesitamos nuevas vocaciones que recojan el testigo de esta rica tradición, encarnando también hacia el futuro esa llamada del amor de Dios que nos mueve, nos abre a nuevos descubrimientos y nos enriquece en el proceso.

Celebramos este aniversario pidiendo a Dios que nos ayude a profundizar y actualizar nuestro espíritu misionero. Le pedimos también la humildad necesaria para comprender que, aquellos a quienes acompañamos, puedan ahora tendernos su mano para afrontar el gran desafío evangelizador que tenemos en esta Europa, cada año, un poquito más vieja y secular.

Bilbao 23-01-2023

Joseba Segura Etxezarraga

Obispo de Bilbao y Delegado para las Misiones Diocesanas Vascas

Monición de entrada

Buenos días a todas y a todos, bienvenidas y bienvenidos a la celebración de la Eucaristía.

Hoy, 19 de marzo, día de San José, celebramos, el día de nuestras **Misiones Diocesanas Vascas**. Este año 2023, las diócesis de Bilbao, San Sebastián y Vitoria celebramos los 75 años, del inicio de esta aventura misionera. **"75 Años Abiertos al Mundo-Mundura zabalik"**.

En nuestro camino hacia la Pascua, Jesús, en el Evangelio de hoy, se hace cercano al ciego de nacimiento. Éste pide ver, lo desea de todo corazón. La gente lo mira como un pecador castigado por Dios. Jesús lo mira de manera diferente. Él se siente llamado a acoger y curar a los que viven excluidos y humillados. El ciego, por fin, podrá disfrutar de una vida digna. Es Jesús, el misionero de Galilea, Buena Noticia para los pobres de ayer, de hoy y de siempre.

Pedimos perdón

- Porque somos duros de corazón y no acogemos y defendemos a los humillados. **Señor, ten piedad.**
- Porque pensamos y sentimos que nada tenemos que aprender de otros. **Cristo, ten piedad.**
- Porque te invocamos como Padre, pero nos desentendemos de tus otros hijos e hijas. **Señor, ten piedad.**

Monición a la Palabra

Primera lectura: **Primer Libro Samuel 16,1b.6-7.10-13ª**. David es ungido rey de Israel. Su misión: servir al Pueblo de Israel.

SALMO: **El Señor es mi pastor, nada me falta.**

Segunda lectura: Carta de San Pablo apóstol a los Efesios 5,8-14 "Levántate de entre los muertos". La fe en Jesús nos invita a resurgir, a renovarnos, a ponernos de pie.

Evangelio: **Según San Juan 9,1-41** "Fue, se lavó y volvió con vista"

Sugerencias para la homilía**-Desde la escucha de la Palabra de Dios de hoy:**

El misionero Jesús, el de Nazareth, el de la Galilea de los gentiles curaba a muchos. Todos los que sufrían acudían a él. Se acercaba a estas personas. Así pasó con el ciego de nacimiento, quien, al empezar a ver, exclamó: Es un profeta. Por ello, los representantes de la religión expulsaron al recién curado. Jesús, el misionero, le buscó, se encontraron y caminaron juntos. Yendo al relato, Jesús, el profeta de Dios, lo primero que hizo al comenzar la misión, empapado por el Espíritu, fue irse a Galilea, la región de los pobres, calificados como ignorantes y malditos ante la Sociedad y ante Dios.

-Desde los 75 años de experiencia misionera interdiocesana:

"En 1948 un grupo de cristianos de estas tierras se fueron a vivir el Evangelio por un amor que no tiene fronteras. Así nacieron nuestras Misiones Diocesanas Vascas... Jesusen Eliza misiolaria gara". Con esta canción, en la celebración de los 50 años, recordamos los inicios de la aventura Misionera.

También cantábamos *"La pobreza del Mundo se puede arrancar... y por eso te invito ahora mismo a montar en un tren que se llama solidaridad"*. Así, de rodillas ante huellas de pisadas profundas

misioneras, en Angola, Rwanda, Congo, Venezuela, Brasil, Chile, Ecuador...aprendemos, como discípulos, en la escuela de los pobres del mundo.

“Fuiste misionero, desde un hospital, desde la impotencia de una cama. Tu mejor servicio misionero fue saber vivir, roto pero entero, la esperanza”. El ejemplo de los compañeros, que como Iñaki Cámara, han sabido vivir aquí lo aprendido de los empobrecidos, nos sigue ayudando en este caminar.

-Nos hicisteis humanos, nos sentimos familia: Sacerdotes, religiosas, laicas y laicos de las tres diócesis vascas, cada cual, de su padre y su madre, eso sí con ganas de entendernos y ayudarnos. Recorríamos los recintos de montaña y de playas animando la creación de Pequeñas Comunidades. Y caminamos juntos, a manera sinodal, la experiencia de los Equipos de Pastoral.

-Nos sigues llamando a ser misioneros y misioneras, a ser Diócesis Misioneras Canta, amigo, sigue cantando a la vida, enséñanos a cantar con alma universal, con espíritu misionero. Ser mensajeros del bien, aquí y al otro lado del mar. *“Y los pobres y esclavos, que siguen siendo mayoría, podrán vivir en dignidad”.*

Oración de la comunidad

1.- Pidamos hoy por las Iglesias diocesanas de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava; para que este tiempo sinodal, con la fuerza del Espíritu, nos ayude en el compromiso misionero. Que trabajemos todos para construir un mundo más humano. Te lo pedimos, Señor.

2.- Por los misioneros y misioneras, por las comunidades cristianas de Ecuador, Kenia, Ruanda, Congo, Angola, Bolivia, ...; para que, con su manera de vivir, nos acerquen al Dios de los pobres y, para que desde la solidaridad, les ofrezcamos nuestra oración y nuestra aportación económica. Te lo pedimos, Señor.

3.- Por los Grupos de solidaridad y Misiones de nuestras Diócesis. Dales fuerza y ánimo para que nos sigan ayudando a ser más conscientes de nuestro compromiso misionero con los empobrecidos del Mundo. Oremos. Te lo pedimos, Señor.

4.- Que sigamos escuchando el clamor de las personas que sufren, que compartamos esfuerzos con las personas que siembran el Mundo de justicia, de amor y de paz. Oremos. Te lo pedimos, Señor.

ORACIÓN FINAL

Señor y Padre de la humanidad, que creaste a todos los seres humanos con la misma dignidad, infunde en nuestros corazones un espíritu de hermanos.

Inspíranos un sueño de reencuentro, de dialogo, de justicia y de paz.

Impúlsanos a crear sociedades más sanas y un mundo más digno, sin hambre, ni pobreza, sin violencia, sin guerras.

Que nuestro corazón se abra a todos los pueblos y naciones de la tierra, para reconocer el bien y la belleza que sembraste en cada uno, para estrechar lazos de unidad, de proyectos comunes, de esperanzas compartidas. Amen.

AGRADECIMINETO

Misiones Diocesanas quiere reconocer y agradecer, especialmente en este 75 aniversario, la generosidad de tantas personas anónimas que realizan donativos y comparten legados, implicándose de esta manera en la tarea misionera. ESKERRIK ASKO!!

En 2022 se han apoyado 48 proyectos de diferentes ámbitos como la educación, la salud, el desarrollo social, los Derechos Humanos,... y proyectos de apoyo a las parroquias donde están los misioneros y misioneras en diversas necesidades. Tenéis más información en la memoria 2022. Ver página web (www.misioak.org).

Actividades campaña MMDDVV * 75 Abiertos al mundo

Fecha	Actividad	Lugar	Hora
4 de marzo	<u>Inauguración del archivo de MMDDVV</u> Con ponencias de Satur Gamarra y Anabella Barroso. Inauguración del archivo y celebración de la Eucaristía . Se terminará con una comida.	Seminario de Vitoria	De 10,00 a 16, 00 h
15 de marzo	<u>Encuentro misionero</u> "75 años compartiendo camino" Encuentro de las personas que han colaborado y colaboran con Misiones a lo largo de estos años. Un espacio para recordar, agradecer y reconocer su compromiso misionero y llenarnos de esperanza e ilusión. ¡Animaos a participar!	Barria Plaza Nueva, 4 Salón 1º planta	17:30 -18,00 h 19,30-20,00h (a confirmar)
19 de marzo	<u>Celebración de la eucaristía</u> Eucaristía presidida por el obispo de Bilbao Mons. Joseba Segura	Catedral Santiago	12:00 h
21 de abril	<u>Concierto de celebración a cargo de la Sociedad Coral de Bilbao</u>	Parroquia de San Vicente de Abando	19:00 h
Itinerante	<u>Exposición, 75 años abiertos al mundo</u>	Exposición itinerante	

Números de cuenta de Misiones Diocesanas Vascas:

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574

LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957

BIZUM _____ 00897

Nota: Al hacer el ingreso señalar primero: MUNICIPIO y a continuación el NOMBRE DE LA PARROQUIA, para poder identificar las parroquias que tienen el mismo nombre.

En nombre de todos los misioneros y misioneras. **ESKERRIK ASKO!!**

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA

75 URTE MUNDURA ZABALIK



75 AÑOS URTE

19 de Marzo
Martxoak 19
2023

desde 1948-tik

ABIERTOS AL MUNDO

MUNDURA ZABALIK

misioak.org

MMDDVV
elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574

LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957

BIZUM _____ 00897

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin haxe jarri: **HERRIA-PARROKIAREN IZENA** (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko). Adibidez: **Getxo – Andra Mari MMDDVV K.** Info: tlf: 94 401.36.99
mail: misiobi@bizkeliza.org.

Agur bero bat:

Aurreko urteetan lez, euskal Eleizbarrutietan ELEIZBARRUTIKO MISINOEN EGUNA ospatuko dagu martxoaren 19an, aurton, goiburu honen haritik:

“75 URTE MUNDURA ZABALIK”

Hiru euskal Eleizbarrutiok munduan aitzindari izan zan eta Euskal Eleizbarrutietako Misinoetan zehaztu zan misinoagazko konpromisoa barritu dogu. Apustu hau, urteen buruan aldatu eta egokitu egin da gauzatzeko erei dagokienez, baina leial iraun dau, Jesukristoren jarraitzaileen eskutik. Akonpainamendua emon dogun herrialdeetako txirotuei eta Eleiza ahiztei erantzuten eta lagun egiten jarraitu dogu. Hirurogeta hamabost urteren ostean, konpromiso hori indarrean da eta “mundura zabalik dagozan” eleizbarruti bihurtu gaitu eta izaera hori gogorarazoten deusku. Aurtengo kartela misino-abenturaren hasierako kartelen oroitzapena da.

Hainbat jarduera antolatu dogu Eleizbarruti arteko kanpaina honetarako eta zuok parte hartzea gurako geunke. Euskal Eleizbarrutietako Misinoen Artxiboa inauguratuko da Gasteizen; ospakizuna egingo dogu Bilbon, laguntzaileak, korrespontsalak, boluntarioak eta misiolariak batuz eta kanpainetako kartelik esanguratsuenak ikusgai jarriko doguz erakusketa baten. Bialduko deusuegu guzti honen barri.

Misinoen egunari buruzko lagungarriak eta 2022ko jarduera eta egitasmoen oroitza-txostena jasoko dozuez parroketan. Kanpainaren inguruan gehiago jakiteko: www.misioak.org.

Egun ona opatzeaz batera, esker ona adierazo gura deusuegu zuen laguntza eta eskuzabaltasunagaitik.

Besarkada bat.

Felicitas Martin Fernandez
Misinoetarako Eleizbarrutiko ordezkaria. Bilbao

75 urte mundura zabalik / 75 años abiertos al mundo
"Zoazte herri guztietara" Mt 28, 19.

Nondik gatoz

1948.eko urriaren 12an Elizbarrutiko lehen zortzi misiolariak Ekuadorrera abiatzea, garai hartan Bilbao, Donostia eta Gasteiz barne hartzen zituen Elizbarrutiaren, bereziki misio-jaiera handia bizi zuen Seminario haren, baterako gogoeta, zailtasun, amets eta gogo biziz beteriko ibilbide luzearen emaitza izan zen. Hortik sortu zen ordura arte munduan ezagutzen ez zen esperientzia: Misioko lurralde jakin baten ardura lekuko Eliza bati ematea. Horixe izan zen Euskal Elizbarrutietako Misioen sorrera.

Misioa, eraldatu egiten gaituen hartu-eman

1948az geroztik, Euskal Elizbarrutietako Misioak Amerika eta Afrikako (Ekuador, Venezuela, Brasil, Txile, Angola, Ruanda, Kongoko E.D.) zenbait tokitan hedatu izan dira eta 700 misiolari inguruk Elizaren Mundu-mailako Misioaren aldeko apustuari adore eta bultzada eman izan dio.

Misioa ulertzeko eta Misioan egoteko erak aldatzea –kulturatzea, elkarrekeko lana, giza sustapena, justiziaren aldeko borroka, herri-erlijiositatea...- ekarri duen askotariko kultura eta herriekiko hartu-emanari esker, ibilbide hau egia bihurtu da. Honela, gure elizbarrutiak herri hauetan fede akonpainamendua eskaintzearen esperientziak, beren bizitza eta duintasuna mugatzen duten pobretasuna eta aukerarik eza gainditzeko borroken esperientziak, eman izan digun aberastasunera zabaldu dira.

Prozesu honetan, lagun egiteaz gainera, hamaika gauza ikasi dugu, zerbitzatu ditugun Eliza ahizpa gazteen aldeko gure konpromisoa sakondu eta aberastu egin dugu.

Pozgarria da 75 urteko historia bereko partaidetza ospatu ahal izatea. Urteurren hau, aukera ona da hainbeste laguni, lekuz leku, eremuz eremu, misiolarien familia handia osatzen duten guztiei, parroketan, misio-taldeetan, Los Ríos aldizkariaren korrespontsalietan..., erakutsi duen misio-leialtasun eta konpromisoa eskertzeko.

"Zoazte herri guztietara"

San Jose eguneko aurtengo kanpainan, gure Elizaren sortzezko sena gogoratu eta, batez ere, eguneratu nahi dugu: *"Zoazte herri guztietara"* (Mt 28, 19).

Mundura zabalik gauden Eliza gara eta sen hori berritu egin nahi dugu etorkizunari begira, kristau elkarrearen ezinbesteko egitekoa bultzatuz: Jainkoaz dugun esperientzia, Jainkoak bere burua agertzera emateko aukeratu duen, otoitzean bere bidea aurkitzen duen eta ibilbiderik onena erakusten digun Jesukristoren Berri Ona zabaldu. Eta Jesus Jaunak gizadi atsekabetuaren garrasietan egiten digun deiari erantzunez egiten dugu hori. Ebanjelioaren mezuaren osotasunean oinarriturik, biziaren alde egiteko gogo bizia duten jarraitzaileak ezinbesteko dituen Jesus Jaunari baiezkua emanez.

Gaur egungo errealitatea, konplexua da, izan ere, desberdintasuna, klima-aldaketa, gerrak, giza eskubideen urraketak... hedaturik daude han eta hemen eta, ondorioz, geldiezin da pertsona migratzaileen, errefuxiatuen eta desplazatuen mundu-mailako irteera. Egoera hauen aurrean, misioan

gauden kristau izanik, geure gain hartzen dugu Berri Onaren osoko iragarpena, Jesusen Jainkoaren, bere mezu sendatzailearen banakako eta gizarteko bizipena.

Europar, gure bizigiroetan, misioaren beharra gero eta premiazko eta zailagoa bada ere, sarritan txiki- txikiak diren gure zirkulu eta ikuspuntuetatik ateratzen lagunduz, gure bihotza eta burua zabaltzen duen begirada unibertsala ezin dugu galdu. Bere salbazioa lurraren mugalde guztietara irits dadila nahi du Kristok eta, gaur egun ere, elkarlanean aritzea eskatzen digu.

“Bizitza ez da badoan denbora, elkartzeko denbora baizik”, diosku Frantzisko Aita Santuak. Misioa, asko ematen diguten txirotuengan Jainkoarekin bat egitea da. Honek dei egiten digu gaur ere, gatz, argi eta legamia, xumetasunetik haziz doan eta fruitu eta itxaropen bilakatzen den ziape-alearen antzeko izan gaitezen.

Gure elizbarrutiak beste herri batzuen ebanjelizazioaren aldeko apustua egitera bultzatu zituen misio- konpromisoak aberastu egin gaitu eta hiru elizbarrutiak zeharkatu dituen eta nortasuna eman dien bitartekoa izan da. Etorkizunean ere, horrela izatea nahi dugu.

Eliza gazteen garaia

Aldatu egin dira garaiak, eta gidatu genituen elkarte jaio berri haiek hazi eta Eliza heldu bihurtu izan dira. Orain, nahitaez, beste era batera hurbildu behar dugu elkarte horietara, beste era batera lagun egin behar diegu, beste era bateko harremana izan behar dugu beraiekin. Baina Jesusek atera eta Berri Ona herri guztiei iragartzeko egiten digun deia entzun egin daiteke gaur ere eta dei horrek ez du indarrik galdu behar.

Urteak joan, urteak etorri, misiolarien, Hegoaldeko ahotsen lekukotasunekin, senidetzeekin, “udako esperientziekin” elikatu gara parroketan. Aurrerantzean ere, bideak bilatu eta proposamenak zehaztuko ditugu, zahar eta berriak, gure misiolari izatea unean-unean eta lekuan-lekuan molda dadin.

Lanean jarraituko dugu, misio-sustapenean eta beste herri eta Elizekiko lankidetzan. Ezinbestekoak dira tradizio aberats honen lekukoa jasoko duten bokazio berriak, mugiarazi, aurkikuntza berrietara ireki eta prozesuan aberastu egiten gaituen Jainkoaren maitasunaren dei hori etorkizunari begira gorpuztuz.

Urteurren hau ospatzean, gure misio-sena sakontzen eta eguneratzen lagun diezagula eskatuko diogu Jainkoari. Ezinbesteko apaltasuna ere eskatuko diogu, laguntzen ditugun haiek, urtetik urtera apur bat zaharrago eta sekularrago den Europa honetan dugun egundoko erronka ebanjelizatzaileari aurre egiteko laguntza eman diezaguketela uler dezagun.

Bilbao 2023-01-23

Joseba Segura Etxezarraga

Bilboko Gotzaina Euskal Elizbarrutietako Misinoetarako Ordezkarria

SARRERAKO MONIZIOA

Egunon, guztioi: Ongi etorri Eukaristiaren ospakizunera.

Gaur, martxoak 19, San Jose egunean, beti bezala, Euskal Elizbarrutiko Misiok ospatzen ditugu. 2023. urte honetan 75 urte beteko ditugu, Diamantezko Ezteiak. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurraldeetako jendeak iraupen luzeko maitasuna ospatzen du, baliotsuena. Kanpaina honen kartelean, mundu pobretuko emakume xume batek, haurra bizkarrean duela eta esker oneko irribarrez, hauxe dio: **“75 urte Abiertos al Mundo-Mundura zabalik”**.

Pazkora bidean, Jesus, Ebanjelioan, jaiotzez itsua denari hurbilduko zaio gaur. Itsuak ikustea eskatzen du, bihotz-bihotzez nahi du. Jainkoak zigortutako bekataria gisa begiratzen dio jendeak. Jesusek beste modu batean begiratzen dio. Baztertuta eta umiliatuta bizi direnak babestera eta sendatzera deitua sentitzen da Jesus. Azkenean, bizitza duina izango du itsuak. Jesus da, Galileako misiolaria, Albiste Ona atzoko, gaurko eta betiko pobreentzat.

BARKAMENA ESKATZEN DUGU

-Bihotz gogorak garelako eta ez ditugulako umiliatuak babesten eta defendatzen. **Erruki, Jauna.**

-Pentsatzen eta sentitzen dugulako ez dugula ezer ikasiko besteengandik. **Kristo, erruki.**

-Aita deitzen dizugulako, baina zure beste seme-alabei muzin egiten diegulako. **Erruki, Jauna.**

IRAKURGAIEN MONIZIOA

-Lehen irakurgaia: Samuel 16,1b.6-7.10-13. David Israelgo errege gantzutua. Bere misioa: Israelgo herriari zerbitzatzea

-Salmoa: Jauna nire artzaina da, ezer ez zait falta.

-San Pablo apostoluaren gutuna Efesoarrei 5,8-14 “Altxa zaitez hilen artetik”. Jesusenganako fedea berpiztera, berritzera, zutik jartzera gonbidatzen gaitu.

-Ebanjelioa: San Joanen arabera 9,1-41 “Joan, garbitu eta ikusmena etorri zitzaion”

HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

- Gaur Jainkoaren Hitza entzuteko:

Jesus misiolariak, Nazaretekoak, jentilen Galileakoak, jende asko sendatzen zuen. Sufritzen ari ziren guztiak harengana joaten ziren. Pertsona haiengana hurbiltzen zen. Halaxe gertatu zitzaion jaiotzetik itsua zenari, zeinak, ikusten hasi zenean, oihu egin baitzuen: Profeta da. Horregatik, sendatu berria kanpora bota zuten erlijioaren ordezkariak. Jesus misiolaria haren bila joan zen, topo egin zuten eta elkarrekin ibili ziren. Kontakizunari helduta, Jesusek (misiolaria, Jainkoaren profeta), misioa hasi zuenean egin zuen lehenbiziko gauza izan zen, Espirituak blaitua, Galileara joan, pobreen eskualdera, Gizartearen eta Jainkoaren aurrean ezjakintzat eta madarikatutzat hartzen zirenak.

- 75 urteko misiolari-esperientzia elizbarrutien artean:

“1948an lur hauetako kristau batzuk Ebanjelioa bizitzera joan ziren mugarik ez duen maitasuna erakutsiz. Halaxe jaio ziren gure Euskal Elizbarrutiko Misiok. Eta Jainkoak bedeinka ditzala gure Eliza

eta gure Herria. Jesusen Eliza misiolaria gara". 50 urte bete genitueneko ospakizunean abesti horrekin ekarri genituen gogora Misiolari abenturaren hastapenak.

Beste hau ere abestu genuen: "Munduko pobrezia desagerrarazi daiteke... eta horrexegatik gonbidatzen zaitut oraintxe bertan elkartasuna deritzon trenera igotzera". Hala, misiolarien oinatz sakonen aurrean belauniko, Angolan, Rwandan, Kongon, Venezuelan, Brasilen, Txilen, Ekuadorren... ikasiko dugu, ikasle gisa, munduko pobreen eskolan.

"Misiolaria izan zinen, ospitale batetik, ohe baten ezintasunetik. Hautsita baina osorik, itxaropena bizitzen jakitea izan zen zure misiolari zerbitzurik onena". Iñakik bezala, pobretuengandik ikasitakoa hemen bizitzen jakin duten lankideen adibideak lagundu egiten digu ibilbide horretan aurrera egiten.

- Gizatiar egin gintuzuen, familia sentitu ginen: Euskadiko hiru lurraldeetako apaizak, erlijiosoak eta laikoak. Bakoitza bere aitarena eta bere amarena, hori bai, elkar ulertzeko eta laguntzeko gogoz. Mendietan eta hondartzetan barrena ibili ginen, Komunitate Txikiak sortzera bultzatuz. Eta elkarrekin bizi izan genuen, sinodo moduan, Pastoral Taldeen esperientzia.

-Misiolari izan gaitzen deia egiten jarraitzen duzue, Euskal Misiolari Elizbarrutiak: Kanta ezazu, lagun, segi kantari bizitzari, erakutsiezaguzu arima unibertsalez kantatzen, espiritu misiolari kantatzen. Ongiaren mezulari izaten, hemen eta itsasoaren beste aldean ere.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

1.- Jainkoari, Aita-Amari, gomendatzen gatzazkio Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako gure elizbarrutiko eliza misiolariak. Busti gaitzala espiritu misiolari, hemen eta itsasoaren beste aldean ere, munduko behartsuei laguntzen. Egin dezagun otoitz. Eskatzen dizugu, Jauna.

2.- Komunitate kristauei laguntzen jarraitzen duten misiolarien alde. Jarrai dezagun ikasten gizatiar izaten, familia izaten, Eliza solidarioa izaten. Egin dezagun otoitz. Eskatzen dizugu, Jauna.

3.- Gure Elizbarrutiko Elkartasunerako eta Misioetarako taldeen alde. Emaiezu indarra eta adorea munduko pobreekiko dugun misiolari-konpromisoaz jabetzen lagun diezaguten. Egin dezagun otoitz. Eskatzen dizugu, jauna.

4.- Jarrai dezagun sufritzen ari diren pertsonen aldarria entzuten, ahaleginak parteka ditzagun mundua justiziaz, maitasunez eta bakez ereiten duten pertsoekin. Egin dezagun otoitz. Eskatzen dizugu, jauna.

AZKEN OTOITZA

Gizakion Aita eta Jauna zaren hori, gizaki guztiak duintasun berarekin sortu zenituen, sorrarazi gure bihotzetan senide-espirtua. Inspiratuiezaguzu topaketa-, elkarriketa-, justizia- eta bake-ametsa. Bultzatu gaitzazu gizarte osasuntsuagoak eta mundu duinagoa sortzera, goseterik gabea, pobreziarik gabea, indarkeriarik gabea, gerrarik gabea.

Gure bihotza zabaldu dadila lurreko herri eta nazio guztietara, horietako bakoitzean erein zenuen ongia eta edertasuna ezagutzeko, eta lotura estuak ezartzeko batasunerako, proiektu amankomunetarako eta itxaropenak partekatzeko. Amen

ESKER ONA

Elizbarrutietako Misioek aitorpena eta esker ona adierazi nahi die, bereziki 75. urteurren honetan, dohaintzak egin eta legatuak uzten dituzten pertsonen egundoko eskuzabaltzauna, urtez urte misioen aldeko konpromisoa erakusten baitute.

2022an, 48 egitasmotan (9 Afrikan, 8 Hego Amerikan eta 1 Filipinetan) lagundu zen. Hain zuzen ere, hainbat arlotan –heziketa, osasuna, gizarte garapena, Giza Eskubideak, misiolarien parroketako egitasmoak...- garatzen diren egitasmoak dira. 2022ko jardueren oroitza-txostenean aurkituko duzue informazio gehiago (www.misioak.org)

Kanpainako jarduerak * 75 urte mundura zabalik

Fecha	Actividad	Lugar	Hora
Martxoak 4, larunbata	<u>EEEEMMen artxiboaren inaugurazioa</u> Satur Gamarra eta Anabella Barrosoren hitzaldiekin. Artxiboaren inaugurazioa eta Eukaristiaren ospakizuna. Amaitzeko, bazkaria ospatuko da.	Gasteizko Seminarioan	10:00etatik 16:00etara.
Martxoak 15, asteazkena	<u>"Misio-bilera</u> "75 bidelagun izanez". Urteotan Misioen arloan lagundu izan duten eta laguntzen diharduten pertsona guztien biltzarra. Misio-kopromisoa gogoratzeko, eskertzeko eta aitortzeko. Zatozte!	Barrian, (Plaza Barria, 4-1º) martxoaren 15ean,	17:30-18:00etatik 20:00-20:30etara (baieztatzeko).
Martxoak 19, igandea	<u>Eukaristiaren ospakizuna</u> Eukaristia, On Joseba Segura Bilboko gotzaina buru dela.	Katedralean – Santiago plaza	12:00etan.
Apirilak 21, ostirala	<u>Bilboko Koral Elkartearen kontzertua</u>	Abandoko San Bizente Martiria parrokian	19:00etan.
	<u>"75 urte mundura zabalik" erakusketa ibiltaria</u>	Erakusketa ibiltaria	

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deusueguz:

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574

LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957

BIZUM _____ 00897

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin hauxe jarri: HERRIA - PARROKIAREN IZENA (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko)

Misiolari guztien erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!!**